

HOMOLOGAZIOA

Garbi dago gaur Ertzantza zer den Espainiako autnomien estatuaren egituran: estatuak bere legeak betearazteko EAeko lurraldeetarako duen «segurtasun indar» edo polizia berezia. Ez dago horren garbi, ordea, zein den indar politiko abertzaleek Ertzantzari aitortzen dioten papera, balizko estatu —edo «status»— berri bati begira. Batzuen eta besteen usteak uste, eta desioak desio, lorpen bat behintzat onartu behar zaio 2003ko Ertzantzari: tortura susmoetan, etorkin, gazte edo bestelako susmagarriengandiko izuan, eta gehiengoaren babes soziala duten kale agerraldien errepresioan herrialde demokratiko esaten zaien polizien maila erdietsi du. Bilbon irailaren 14an egin zen manifestazioaren kontra egindakoaren antzekoak aurki daitezke Europa eta AEBetako polizien eskutik. Zer esanik ez, J.A.V.A. gaztea koman uzterainoko jipoi antzekoak. Horretan ez dago diferentzia handirik Ertzantza eta Frantzia, Erresuma Batua, Alemania edo AEBetako polizien artean. Baina badira gutxienez bi gauza Ertzantza horietatik bereizi eta Espainiako Poliziekin berdintzen duena.

Bata gizartearen erreakzioari buruzkoa da; arduradun politikoen erantzunari buruzkoa, bestea. Tortura, jipoi edo justifikatu gabeko errepresio kasu garbiak gertatzen direnean ohikoa da demokrazia aurreratuetan «gizarte zibilaren» erreakzio ozena. Komunikabideek kasua ikertzen dute eta kontuak eskatu. Erantzunak eta erantzuleak bilatzen dira. Ez da besterik gabe bertsio ofiziala onartzen. Horren ondorioz, seguru aski, arduradun politikoez, erantzun ahalik eta egokiena eman behar dute eta, hau sinesgarria izan dadin, neurriak hartu: norbait kargugabetu, zigorrak ezarri edota dimititu. «Gizarte zibila» ez da beste ezerekin konformatzen, bizi-bizirik dagoelako.

Orain pentsa Bilboko manifestazioan edo J.A.V.A.rekin gertatutakoen ondorengoetan: komunikabideen erreakzioak, batetik, eta Balza eta Imazen erantzunak, bestetik. Esango didazue zeinekin homologa daitekeen Ertzantza: demokrazia aurreratuetako poliziekin ala Espainiako Polizia «Nazional» eta Guardia Zibilarekin. Azken hauen demokrazia mailean homologatzea balekoa izan daiteke Espainia beste erreferenterik ez daukanarentzat, baina benetan oso kezagarria da Euskal Herriarentzat, «status» nahiz estatu demokratiko sakona nahi duenarentzat. Ezinezkoa izango baita Euskal Herri demokratikoa, arduradun politiko eta erakundeen jarrera kritikaezina —*ukituezina*— bihurtuta.